

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Bastidako (Araba) Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua – gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordea – betetzeko oinarriak eta deialdia, titularra ez dagoelako

2020ko urtarrilaren 2az geroztik, Udal honetako idazkari-kontuhartzaile lanpostuaren titularra den funtzionarioa Barakaldoko (Bizkaia) Udaleko idazkari lanpostua betetzen ari da, zerbitzu eginkizunetan. Beraz, ezinbestekoa da Bastidako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea titularraren zerbitzu eginkizun horrek dirauen artean.

Kontuan izanik gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutakoa, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 21.1 h) artikuluan ezarritakoa, alkateak 1/2020 Dekretua eman du, zeinaren bidez hau ebazten baitu:

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionario bat Bastidako (Araba) Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduetakoren batean.

Bigarrena. Prozedura horren oinarriak onestea, zeinak ebazpen honen eranskinean jasota baitaude.

Hirugarrena. 5 egun baliouduneko epea irekitzea, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta biharramunetik hasita, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduetakoren batean Bastidako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea interesatzen zaien gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioek horretarako eskaera aurkez dezaten.

1/2020 dekretuaren eranskina

Prozeduraren oinarriak, Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionario bat Bastidako (Araba) Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduetakoren batean

Lehenengoa. Bete beharreko lanpostua eta esleitutako hizkuntza eskakizuna. Bastidako (Araba) Udaleko idazkari-kontuhartzailea, idazkaritza-kontuhartzailetza azpieskalarentzat gordea.

Lanpostuak nahitaezko 4. hizkuntza eskakizuna du esleituta.

Bigarrena. Interesdunak. Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioek bakarrik har dezakete parte prozeduran.

Hirugarrena. Eskaeran, interesdunak berariaz adierazi behar du zein modutara bete nahi duen Bastidako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduen artetik.

Laugarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua. 5 egun baliodun, deialdia ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutako leketan ez ezik, eskaerak helbide elektriko honetan ere aurkeztu ahal izango dira: alabastida@ayto.araba.eus.

Bosgarrena. Hautagaiak proposatzeko orduan, hurrenkera hau jarraituko da:

1. Behin-behineko izendapena aukeratu duten hautagaiak, eta, horien artean, gaikuntza nazionalerako toki administrazioko funtzionarioen merezimenduen azken baremoan puntu gehien lortu duena.

2. Zerbitzu eginkizuna aukeratu duten hautagaiak, eta, horien artean, gaikuntza nazionalerako toki administrazioko funtzionarioen merezimenduen azken baremoan puntu gehien lortu duena.

3. Metaketa aukeratu duten hautagaiak, eta, horien artean, gaikuntza nazionalerako toki administrazioko funtzionarioen merezimenduen azken baremoan puntu gehien lortu duena.

Seigarrena. Beste azpieskala bateko funtzionarioak proposatu ahal izango dira baldin eta ez badago hautagairik idazkaritza-kontuhartzaitza azpieskalan.

Zazpigarrena. Oinarri hauek aplikatzen ez badira, gaikuntza nazionalerako toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua aplikatuko da.

Bastida, 2020ko urtarrilaren 8a

Alkatea

LAURA PÉREZ BORINAGA